



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 31

130. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Zenbait zerga aldatzen dituena. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabide publikoei emandako erabileraren gaineko kontrol-sistema efiziente bat ezar dezan, zentro soziosanitarioetan farmazia-zerbitzua emateari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikorako deialdia segurtasun juridikoz egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, apustuekin eta, bereziki, kirol apustuekin zerikusia duen guztia arautzeko xedez. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan urtegien segurtasunaren arloko legeria eta araudi indardunak alda ditzan eta Aspuzko urtegiaren proiektua baztertu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat taxutu dezan, amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxikipenak itzultze aldera. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremua sortu ondoren taxi zerbitzua dela-eta Iruñerrian eginko antolaketak eta kudeaketak zerbitzu horren hobekuntza ekarri du, eta horren ondorioz, Iruñerriko Mankomunitatean beste zerbitzu batzuetarako sartuta zeuden udal batzuek eskatu dute aipatu eremuan sartzea. Alabaina, hori ezinezkoa izan da egungo araudiarekin.

Gaur egun Iruñerriko Mankomunitatean sartuta egonik eremu horri atxikitzea eskatzen duten beste udal batzuei horretarako modua ematearren, foru lege honen bidez kendu egiten da Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu bat zedarrizteko baldintza gisa ezarrita zegoen lurralde-koheren-tziaren betekizuna, eta xedapen iragankorrean prozedura eta baldintzak ezartzen dira udal horiek Iruñerriko Baterako Taxi Zerbitzurako Lurralde Eremuan sartzeko.

Beharrezkotzat jotzen da testuan esanbidez debekatzea publizitate sexista edo bestelako publizitate oro, pertsonaren duintasunari eraso egiten diona edo Konstituzioan aitorturiko balio nahiz eskubideak urratzen dituena, bai eta prostituzioarekin zerikusia duena ere. Halaber debeka-

tzen da osasun fisiko nahiz mentalerako kaltegarriak diren produktu edo zerbitzuen publizitatea.

2030erako Nafarroako Energia Planaren eta Klima-aldaketaren Ibilbide-orriaren jarduketa esparruan, beharrezko gertatzen da taxi zerbitzuko ibilgailu-flotaren efizientzia energetikoa hobetzeko neurri batzuk ezartzea, halatan berritu dadin egungo ibilgailu-flota gradualki, toki entitatekin koordinaturik eta sektorearen beharizanez arabera, nagusiki "zero igorpen" etiketa duten ibilgailuek osaturiko flota batek ordezturik.

Azkenik, erraztu egiten dira prozedurak, taxi-zerbitzu hobea eta eraginkorragoa ematera bideraturiko administrazioarteko lankidetzarako hitzarmenak sinatzekoak.

Artikulu bakarra. Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzea.

Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen agindu hauek aldatzen dira:

Bat. 9. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. Azterketa hori egindakoan, udalak edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremuan eskumena duen toki entitateak txostena eskatuko dio Nafarroako Taxien Kontseiluari, lizentzien indize orokorra aldatzeko proposamenari buruzkoa. Txosten hori espedienteari erantsiko zaio.

Txosten horren ondorioetarako, erreferentziazko eremu geografikoa izanen da lurralde antolamenduko tresnetan zehaztutako zonifikazioan ezartzen dena; bai eta, kasua bada, Nafarroako Toki Administrazioaren gaineko araudian zehazten den zonifikazioan ezarritakoa ere".

Bi. 12. artikulua 1., 2., 4. eta 8. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

"1. Taxi lizentziak eskualdatu ahalko dira baldin eta udalak edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu batean eskumena duen toki entitateak

horretarako baimen aurretiazkoa eman badu, salbu eta Iruñerriko Baterako Taxi Zerbitzurako Lurralde Eremuan sartzen diren udalerrietako lizentziak; hots, foru lege honen xedapen gehigarri bakarraren 1. apartatuan jadanik adierazitakoez gainerakoetakoak”.

“2. Ez da taxi lizentzia bat eskualdatzeko baimenik eman ahal izanen baldin eta eskualdatzailea lizentziaren titular egin zenetik bi urte baino gehiago iragan ez badira”.

“4. Taxi lizentzien eskualdaketa baimentzeko, beharrezkoa izanen da lizentzia-eskuratzaileak bete ditzan foru lege honen 6. artikuluan lizentziaren ematerako eskatzen diren baldintzak. Beharrezkoa izanen da, halaber, eskualdatzailea egunean egotea toki entitateak eskatu ahal dituen eta taxi-zerbitzuari dagokion jarduerarekin loturik dauden tributuen ordainketan, bai eta, kasu bada, foru lege honetan adierazitako diru-zehapenak ordainduak izatea ere, administrazio bidea amaitzen duen ebazpen baten bidez ezarri zaizkionak”.

“8. Taxi lizentzia bat eskualdatzen duen pertsona ezin izanen da beste lizentzia baten titular izan kasuko ordenantzetan zehaztuko den epea iragan arte. Epe hori ezin izanen da bost urte baino gutxiagokoa izan”.

Hiru. 14. artikuluko 1. apartatuari e) apartatua gehitzen zaio, testu hau duena:

“e) Foru lege honen xedapen gehigarri bakarraren 6. apartatuan ezarritako kasuetan”.

Lau. 20. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Titularraren baliaezintasuna, lanerako ezintasun iragankorra, zerbitzu-ematearen eten behar bezala baimendua, heriotza, erretiroa eta zerbitzu-emate pertsonala ezindu egiten duten gainerako egoera supitu behar bezala frogatuetan, zilegi izanen da langileak kontratatuz lizentzia aldi baterako ustiatzea, 2. apartatuan ezarritako mugapena izan gabe. Nolanahi ere, egoera horren gehieneko iraupena ez da bi urte baino gehiagokoa izanen”.

Bost. 22. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Oro har, gehienez zazpi eserleku dituzten ibilgailuetarako emanen dira lizentziak eta baimeanak (gidariaren eserlekua barne dela). Hala ere, gehienez bederatzi eserleku (gidariarena barne) dituzten ibilgailuetarako baimenak eman ahal izanen dira, zenbait inguruabar kontuan izanik, hala nola mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasuna edo zerbitzua eman behar den tokiaren

ezaugarriak, batez ere geografiaren edo biztanleriaren aldetik ezaugarri bereziak dituen edo trafiko gutxiko tokia denean”.

Sei. 24. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Gainera, ibilgailuaren barrualdean ikusgai egonen da atxikita dagoen lizentziaren zenbakia”.

Zazpi. 25. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio, testu hau duena:

“4. Esanbidez debekatzen da ibilgailuan publizitate sexista edo bestelako oro paratzea, pertsonaren duintasunari eraso egiten diona edo Konstituzioan aitorturiko balio nahiz eskubideak urratzen dituena, bai eta prostituzioarekin zerikusia duena ere. Halaber debekatzen da osasun fisiko edo mentalerako kaltegarriak diren produktu edo zerbitzuen publizitatea, hala nola tabakoarena, alkoholarena, estupefazianteena edo jokoarena”.

Zortzi. 28. artikulua 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta 4. apartatua gehitzen zaio. Honela geldituko dira apartatu horiek:

“2. Taxi lizentziei eta baimenei atxikitako ibilgailuak berriro egin beharko dira lehenengo matrikulaziotik hasi eta hamar urteko antzinatasunera iritsi baino lehen, baina beste bi urtez ere luzatu ahalko da epe hori, udaleko edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremuko toki entitate eskuduneko ordenantzetan ezarritakoaren arabera. Ibilgailuak betiere bete beharko ditu garraio publikoko ibilgailu baterako beharrezkoak diren osasungarritasun- eta segurtasun-baldintzak.

3. “Eco-taxi” eta “eurotaxi” adierazgarria duten ibilgailuen kasuan, ibilgailuak ordeztu beharko dira haien lehenengo matrikulazioaren datatik hamabi urte igaro direnean beranduenik ere. Epe hori gehienez ere beste bi urtez luzatu ahalko da, udaleko edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremuko toki entitate eskuduneko ordenantzetan ezarritakoaren arabera. Ibilgailuak betiere bete beharko ditu garraio publikoko ibilgailu baterako beharrezkoak diren osasungarritasun- eta segurtasun-baldintzak.

4. Lizentziei eta baimenei atxikitako ibilgailuak beste ibilgailu batzuekin ordeztu ahal izanen dira, udalak edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremuan eskudun den toki entitateak aurretiazko baimena eman gero, baldin eta ordeztuko ibilgailua bestea baino berriagoa bada, “zero igorpen” edo “Eco” ingurumen-adierazgarriarekin sailkatuta badago Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroaren sailkapenaren arabera, edo, gutxienez, honako kategoria hauetako bat (edo

baliokide bat) badu: A, B edo C kategoria, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren sailkapenaren arabera; eta, gainera, zerbitzu-ematerako eskatzen diren baldintza eta ezaugarri guztiak betetzen baditu”.

Bederatzi. 31. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. 20.000 biztanle baino gehiagoko Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu batean, udalak edo toki entitate eskudunak behar diren xedapenak jaso beharko ditu bere ordenantzetan, bermatzeko ezen 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera taxi-lizentzietan atxikitzen zaizkien ibilgailuek “zero igorpen” edo “Eco” ingurumen-adierazgarria dutela, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroaren sailkapenaren arabera, salbu eta eurotaxi ibilgailuen kasuan.

2. Administrazio eskudunek, taxiaren sektorearen ordezkartasuna duten elkarteekin eta lizentzia eta baimenen titularrekin batera, sustatuko dute lehen adierazitakoaren arabera “Eco taxi” ibilgailuak atxikitzea, sustapenerako eta laguntzarako xedapenak eta programak ezarri.”.

Hamar. Bigarren paragrafo bat gehitzen zaio 34. artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Halaber baimenduko da zerbitzuak web edo mugikorretarako aplikazio homologatu bidez kobratzea, aplikazioaren bitartezko aurretiazko kobrantza barne”.

Hamaika. 39. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Udalek edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu bakoitzean eskumena duen toki entitateak zilegi izanen dute zerbitzua antolatu eta koordinatzeko arauak ezartzea, zeinetan gutxienez ere jasoko baitira zerbitzu-ituntzerako sistemak, ordu-tegiak, egutegiak, atsedenaldirak eta oporrak, betiere bilaturik taxi zerbitzua behar bezalako jarraitutasunez ematea. Toki entitateak informazio hori ahalik eta gehien hedatzen saiatuko dira. Horretarako, eskura dituzten baliabideak erabiliko dituzte, eta, batez ere, baliabide digitalak.

Halaber ezarri ahal izanen dute zona, geltoki, egun edo ordu jakinetan zerbitzua nahitaez eman beharra. Hori egiten badute, taxi lizentzien titularren koordinaziorako behar diren arauak onetsiko dituzte, zerbitzu horiek ekitate-irizpideen arabera emanen direla ziurtatzeko”.

Hamabi. 48. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Udalek, Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu batean eskumena duten toki entitateek eta

garraioen arloan eskumena duen departamentuak administrazioarteko koordinaziorako formulak ezarri ahaliko dituzte taxi zerbitzua emate aldera, betiere formula horiek haien eskumen esparrua gaintzen ez badute.

Zerbitzua antolatu eta kudeatzeko koordinazioaren norainokoa izanen da formalizatzen diren lankidetzak-hitzarmenetan edo indarreko araudian aurreikusitako beste tresna batzuetan zehazten dena, baldin eta horiek foru lege honetan xedatutakoarekin bat etortzen badira.

2. Lurralde jarraitu bat osatzen duten zenbait udalerritako taxi zerbitzuek elkarren eragina edo interakzioa halako moduan dutenean non udalerririk bakoitzaren interesa gaintu behar baita zerbitzu horiek egoki antolatzeari begira, eta, orobat, eskariaren ezaugarriek zerbitzuaren udalez gaintuko planeamendua egitera behartzen duten tokietan, zilegi izanen da Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremuak ezartzea. Kasu horietan, ezarritako Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremuko toki entitate eskudunak emandako lizentzia duten ibilgailuek ahalmena izanen dute osoki eremu horren barruan egiten diren zerbitzuak emateko.

Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu bat ezarri gero, osoki eremu horren barruan egiten diren taxi zerbitzuak hiriko taxi zerbitzutzat joko dira.

Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu bat zedarritu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira: hura osatuko duten udalerririk jarraitutasun geografikoa izatea eta kudeatzeko bideragarritasun ekonomikoa egotea. Horrez gainera, kontuan hartuko da udalerririk eskatzaileak udalez gaintuko entitate bateko partaide izatea, bere gain hartuko dituen foru lege honen 50. artikuluan adierazitako eskumena eta araubide ekonomikoa.

3. Baterako Zerbitzurako Eremuen kasuan, haien esparru geografikoa kasu eta une bakoitzean egokituko zaio Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen arabidean zehazten den zonifikazioari”.

Hamahiru. 50. artikulua apartatu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

“7. Udalerririk bat Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu batean sartzen denetik hamabi hilabete igaro direnean, Baterako Zerbitzurako Lurralde Eremu horretan eskudun den toki entitateak azterlan bat egin beharko du, 9. artikuluko 1. epigrafeko a), b) eta c) letretan zehazturiko irizpide berei jarraikiz.

Betiere, azterlan horrek Nafarroako Taxien Kontseiluak eginiko nahitaezko txostena izanen du”.

Hamalau. 60. artikuluari o) letra gehitzen zaio, testu hau duena:

“o) 25.4 artikuluan ezarritako debekua urratzea”.

Hamabost. 63. artikuluari 6. apartatua gehitzen zaio, testu hau duena:

“6. Zehapen ahalmena erabiltzea deusetan galarazi gabe, udalek edo Baterako Zerbitzurako Lurralde Ereku batean eskumena duen toki entitateak agindu ahalko dute ibilgailuetatik ken dadila foru lege honen 25.4 artikuluan ezarritako debekua urratzen duen edozein publizitate-iragarki. Errekerimendua urratu egiten bada, eguneko 60 euroko hertsapen-isuna jarri ahalko da. Hertsapen-isunak independenteak izanen dira, eta egindako arau-haustearen ondorioz bidezko diren izaera horretako zehapenekin bateragarriak”.

Hamasei. Xedapen gehigarri bakarraren 6. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“6. Nafarroako Gobernuak, garraioen arloko eskumena duen departamentuak proposaturik, 1. apartatuan aipatutakoez beste udalerrri batzuk sartu ahal izanen ditu Iruñerriko Mankomunitatean, taxi zerbitzuaren ondorioetarako, udal interesdunak hala eskatu eta gero. Horretarako, Iruñerriko Mankomunitatearen adostasuna eta Nafarroako Taxien Kontseiluak eginiko txostena beharko dira.

Apartatu honetan xedatutakoari jarraikiz taxi zerbitzuaren ondorioetarako Iruñerriko Mankomunitatean sartzen diren udalerrietako lizentziak eskualdaezinak izanen dira. Lizentzia horiek berez iraungiko dira titularraren uko egite, erretiro edo heriotza kasuetan, bai eta taxi lanetan aritzeko ezintasun iraunkorreko deklarazioa egiten den kasuetan ere”.

Xedapen gehigarri bakarra. Berrikuntza teknologikoak.

1. Arloan eskudun diren administrazioek, sektorearen ordezkartasuna duten elkarten partaidetzarekin, aginduzkoa dute sustatzea taxi zerbitzuari progresiboki atxiki dakizkion gutxiago kutsatzen duten erregaiarekin funtzionatzeko egokituta dauden edo elektrikoak diren motorrekin dabilzan ibilgailuak, atmosferarako gas-igorpenak eta bestelako kutsadurak nabarmen murrizte aldera.

2. Administrazio horiek orobat sustatuko dute birkarga azkarreko puntu, zerbitzugune eta erabilerara publiko edo pribatuko garaje aski instalatzea bide publikoetan, halako moduz non mugikortasun

elektrikoaren garapena uztarturik egonen baita beharrezkoak dituen hornibideenarekin.

Xedapen iragankor bakarra. Iruñerriko Mankomunitatean dauden udalak eskualde horretako Baterako Zerbitzurako Erekuan sartzea.

1. Iruñerriko Mankomunitatearen barruan egonik uztailearen 6ko 9/2005 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarraren 1. apartatuan sartu ez ziren udalek hiru hilabeteko epean eskatu ahalko dute, foru lege honek indarra hartzen duen egunetik kontatzen hasita, eskualde horretako Baterako Zerbitzurako Erekuan sartzea. Horretarako, nahikoa izanen da interesa duen udalaren osoko bilkuraren erabakia, zeina, 48. artikuluan ezarritako baldintzak betez gero, Mankomunitateak berretsi eta Nafarroako Gobernuari igorriko baitio, udal hori baterako erekuan sartzea onetsi dezan. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Taxi Kontseiluaren txostena, xedapen gehigarri bakarraren 6. apartatuan aipatuta dagoena. Epe hori agortzen bada erekuan sartzeko eskaerarik egin gabe, hortik aurrerako eskaerei dagokienez helduko zaio xedapen gehigarri bakar haren 6. apartatuan ezarritako prozedurari.

Xedapen gehigarri bakar horren 6. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, taxi zerbitzuaren ondorioetarako eta xedapen iragankor hau aplikatuz Iruñerriko Mankomunitatean sartzen diren udalerrietako lizentziak eskualdaezinak izanen dira, eta berez iraungiko dira titularraren uko egite, erretiro edo heriotza kasuetan, bai eta taxi lanetan aritzeko ezintasun iraunkorreko deklarazioa egiten den kasuetan ere.

2. Foru lege honen 50. artikuluan adierazitako eskumenak Iruñerriko Mankomunitatea ez den beste udalez gaindiko entitate batek edo batzuek berenganatzen badituzte, Baterako Zerbitzurako Lurralde Erekuak entitate horien lurralde esparruetara egokitu beharko dira.

3. Xedapen iragankor honetan ezarritakoari jarraikiz erekuan sartzen den udalerrri bateko taxi lizentzia baten titular diren pertsona fisikoek ofizioz lortuko dute taxi-gidari profesionalaren baime-na, baldin eta Baterako Zerbitzurako Lurralde Ereku bakoitzean eskumena duen toki entitateak baimen hori eskatzen badu, dagokion udalerrira ereku horretan sartuz gero.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Zenbait zerga aldatzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Zenbait zerga aldatzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Zenbait zerga aldatzen dituen Foru Legea

Foru lege honen xedea da arau aldaketa batzuk egitea Foru Komunitateko tributuen arloan, zenbait helburu betetzeko baina, batez ere, hobekuntza teknikoak egiteko Foru Komunitateko zerga arloko ordenamendu juridikoan. Horrela, kasu batzuetan beharrezkoa da ordenamendua egokitzea Europar Batasuneko araudiak ezartzen dituen baldintzetara, Batasunaren barneko harmonizazio fiskala lortzeko; beste kasu batzuetan komeni da egun indarra duten zenbait arauen edukia eta irismena zehaztea, araua errealitatearen arabera izan dadin lortzearen; horrez gain, beste kasu batzuetan egokitzeak jotzen da arau batzuen testua hobetzea, horietan atzemandako akatsak zuzentzeko.

Foru legearen egitura sei artikuluk eta bi azken xedapenek osatzen dute.

Lehen artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 39. artikuluko 1., 2., 4. eta 8. apartatuak aldatzen ditu.

Aipatu 39. artikuluan egin beharreko aldaketen arrazoia da Europako Batzordearen zerbitzuek, Jokabideari buruzko Taldean, txosten negatiboa eman izana “patent box” delakoaren onura fiskala gaur egun eraentzen duen nafar araudiari dagokionez. Txosten hori ELGAK gai honetan egindako garapenekin koordinatuta egin da, eta bertan ikusten da Batasunak ez duela onartzen onura fiskal horrek Foru Komunitateko egungo zerga-araudian duen aplikazio esparrua, B.E.P.S. (Base Erosion and Profit Shifting) Planaren 5. ekintzak hauek baizik ez dituelako sartzan onura fiskalaren esparruan: patenteak, funtzionalki patenteen baliokide diren aktiboak eta legez erregistratutako beste aktibo batzuk; kanpoan uzten ditu, aldiz, know-how deitutakoa eta merkataritzako informazio isilpekoak.

Horregatik, 39. artikulua testu berrian ez dira jasotzen ikerketa, garapen edo berrikuntza proiektuen emaitza diren esperientzia industrialei, komertzialei edo zientifikoei buruzko informazioak.

B.E.P.S. Planaren 5. ekintzara egokitzearen ildo horretan bertan, 39. artikulua testu indardunean agertzen den esaldia, “aipaturiko aktibo horien parte diren edo horien inplementazio diren ordenagailu-programak” dioena, kendu, eta berri hau jasoko da: “ikerketa eta garapen jardueren emaitza den software aurreratu erregistratua”. Onura fiskalaren aplikazio esparruan sartuko dira, halaber, medikamentuen eta produktu fitosanitarioren babeserako ziurtagiri osagarriak, bai eta ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueren emaitza diren marrazki eta ereduak ere, legez babestuek.

Foru lege honek proposatzen duen araubide berriaren arabera, esan daiteke zenbait aktibo ukiezinen errenten kenkaria egiteko eskubidea emanen duten aktiboak (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 39. artikuluan araututako kenkaria), funtsean, agindu hauen aplikazio esparruan sartutakoak direla: uztailaren 24ko 24/2015 Legea, Patenteei buruzkoa; uztailaren 7ko 20/2003 Legea, Diseinu Industrialaren Babes Juridikoari buruzkoa; Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/71/EB Zuzentaraua, 1998ko urriaren 13koa, marrazkien eta ereduaren babes juridikoari buruzkoa; eta Kontseiluaren 6/2002 Erregelamendua (EB), 2001eko abenduaren 12koa, erkidego marrazki eta ereduari buruzkoa.

Bestalde, bigarren artikulua bidez hiru aldaketa egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginari (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia). Zehazki, artikulua horren lehen apartatuak 68. quater artikulua gehitzen du, kuota diferentzian kenkari bat gehitzeko, amatasun eta aitatasun prestazioak jasotzeagatik. Artikulu berriak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Kenkari hori oinarritzen da, batetik, prestazio horiei tratamendu fiskal onuragarria ematearen komenigarritasunean. Izan ere, Administrazio Publikoen politika sozial eta ekonomikoaren gidari izan behar diren printzipioetako bat betetzen da horrela: adingabeen eta familiarren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa ziurtatzea. Bestetik, tri-

butu arloko justiziaren eta zergaren progresibotasuna mantentzearen ikuspuntutik, kenkari horren beste arrazoa da egokiagotzat jotzen dela kuota-ren gaineko kenkariaren figura erabiltzea, zerga-oinarriaren gaineko salbuespenarena baino.

Kenkariaren ezaugarriak hauek dira:

Lehena.- Kuota diferentzian egiten den kenkaria da; hau da, zerga kreditu bat, beti gauzatuko dena eta konturako ordainketen trataera bera izan duena.

Bigarrena.- Kenkariaren zenbatekoa kalkulatzeko, portzentaje bat aplikatuko zaio subjektu pasiboek amatasun edo aitatasun prestazioagatik zergaldian jasotako zenbatekoari. Subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak eta prestazioa bera barne, 30.000 euro baino gehiagokoak ez badira zergaldian, kenkaria izanen da zergaldian jasotako prestazioaren zenbatekoaren 100eko 25ekoa. Errenta horiek 30.000 euro baino gehiagokoak badira, aplikatu beharreko portzentajea gutxitzen joan da modu progresiboan, errentak handitzen joan ahala; eta aipatu portzentajea zerokoa izanen da 105.000 euro baino gehiagoko errenten kasuan. Formula horrekin saihestu egiten dira errenta tarteen araberako jauzi-akatsak, eta leundu egiten dira erregresibitate arazoak edo progresibitateari aurka egitearenak, zeinak bailirateke subjektu pasibo guztiei haien errentak kontuan hartu gabe kenkari-portzentaje bera aplikatzeak ekar litzakeenak.

Hirugarrena.- Kenkariak barne hartzen dituen amatasun edo aitatasunagatik prestazioak dira bai lan-etekin direnak (besteren konturako langileak), bai enpresa-edo lanbide-jardueren etekintzat jotzen direnak (norbere konturako langileak). Hala izan behar du, zeren bi kasuetan prestazioaren helburua baita berdintasunez konpentsatzea diru-sarreretan izandako jaitziera, legez ezarritako atsedenaldirak (amatasun, aitatasun, adopzio, harrera eta tutoretzagatikoak) hartzearen lan kontratua etetearen edo jarduerari uztearen (norbere konturako lana) ondoriozkoa.

Laugarrena.- Kenkariak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina. Beraz, berriro ikusten da 2013ko urtarrilaren 1az geroztik amatasun edo aitatasunagatik prestazioa salbuetsi gabe egon dela Nafarroan, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ere ez dela salbuetsita egonen. Diferentzia da, ordea, azken data horretatik aurrera kenkari bat aplikatuko dela zergaren kuota diferentzian, nahiz eta jasotako prestazio publikoa beste errenta bat balitz bezala sartuko den likidazio oinarri orokorrean.

Bigarren artikuluko bigarren apartatuak berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria erantsen dio testu bateginari, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, hain zuzen ere pentsioengatik konpromisoak taxutzen dituzten aseguru kolektiboari enpresek egindako ekarpenen gaineko zerga araubidea zehaztearen.

Jakina denez, Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 14.1.f) artikulua lan etekin gisa kalifikatzen ditu hauek: enpresaburuek ordaindutako ekarpen edo kontribuzioak, enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoari aurre egiteko, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hori garatzeko araudian ezarritako dagoen moduan. Zehazki, lege horren 15.1.f) artikulua diruzkoak ez diren lanaren ordainketa-tzat edo lanaren gauzako ordainketa-tzat hartzen ditu enpresen ekarpen horiek.

Bestalde, testu horren 55.1.Bosgarrena artikulua dioenez, zerga-oinarriaren zati orokorrean egiten da hauen murriztapena: "enpresek pentsioengatik bere gain hartutako konpromisoak taxutzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan langileek egindako ekarpenak eta hartzailearen kontribuzioak, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian ezarri bezala, (...)".

Horrenbestez, araudi horri jarraikiz, pentsioengatik konpromisoak taxutzen dituzten aseguru kolektiboko kontratu mota horretan enpresak ordaindutako primek gauzako lan etekinen izaera dute langilearentzat. Era berean, enpresaren ekarpen horientatik zerga kenkaria egiten ahalko dute horiek ordaintzen dituzten enpresek edo enpresaburuek, jarduera ekonomikoaren gastu gisa, prestazioak nori lotzen zaizkion, horiei egiten bazaie haien egozpen fiskala (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 22.2 artikulua).

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginak hitzez hitz dioenarekin bat, ulertu da nahitaezkoa dela beti egozpen fiskala langileei egitea, gauzako lan etekin gisa hartuta, eta foru araudiak gainera ezartzen du ezen zerga aldetik egozten diren ekarpen horientatik murriztapena egin daitekeela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zati orokorrean, likidazio oinarri orokorra zehaztearen ondorioetarako.

Nabarmendu beharra dago nahitaezko egozpen fiskal horren interpretazioak (zerga-oinarriaren zati orokorrean dagokion murriztapena eginez,

lehen esan bezala) tributazio bikoitza eragin deza-keela batzuetan. Horrela, arauak ezartzen du ezen enpresaburuak edo enpresak aseguru kolektiboaren prima ordaintzen duenean langileak gauzazko lansari gisa deklaratu behar duela hori. Tributazio bikoitza gerta daiteke langileak ezin duenean zerga-oinarrian egin bere zerga-oinarrian sartutako egozpen osoaren murriztapena, zeren, langileak ondoren jasotzen duenean aseguru kolektiboaren prestazioa, berriz tribututzen baitu, lan etekin gisa.

Ziurrenik, legegilearen asmoa tributazio bikoitz hori neutralizatzea izan zen, eta, horretarako, aukera ematea enpresaren ekarpen guztien murriztapena egiteko langilearen zerga-oinarriaren zati orokorrean; errealitatean, ordea, tamaina batetik aurrerako enpresek ekarpen handiak egiten dizkiete aseguru kolektiboari, eta, horrez gain, azken urteotan foru araudian asko jaitsi direnez gizarte aurreikuspeneko sistemengatik zerga-oinarrian egin daitekeen murriztapenaren mugak, emaitza da ekarpen horiek gauzazko lansari gisa tributatzea ez dela konpentsaturik gertatzen zerga-oinarrian egindako murriztapenarekin.

Horrenbestez, disfuntzio horri aurre egiteko, arau-aldaketa bat proposatzen da, berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria eranstekoa; bertan, lehen paragrafoan, aipatzen da enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoei aurre egite aldera enpresaburuak aseguru kolektiboko kontratuetan ordaindutako zenbatekoen egozpen fiskala borondatezkoa izanzen dela. Horrekin batera, egozpen fiskalik ez duten enpresa-ekarpenak ez dira gauzazko lansaritzat hartuko, eta ez dute eskubiderik sortuko zerga-oinarriaren zati orokorrean murriztapenik egiteko. Azken batean, enpresaburuak aseguru kolektiboari egindako ekarpenen tributazioa gauzazko lansariena izanzen da baldin, soilik, haien egozpen fiskala langileei egiten bazaie, eta egozpen fiskal hori enpresaren borondatearen menpe egonen da, edo enpresak langileekin egiten dituen akordioen menpe. Horrela, aseguru kolektiboari egindako ekarpenaren egozpen fiskala ez bazaio langileari egiten, langileak ez du gauzazko lansari gisa deklaratu, eta ez du eskubiderik izanzen bere zerga-oinarrian murriztapenik egiteko.

Xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoaren gaia, berriz, prima bakarreko aseguru kolektiboaren kasu berezia da. Horri buruz komeni da gogortzea 3/1988 Foru Legearen 77.2 artikuluko bigarren paragrafoan ezarri zela –jadanik indargabetuta dago–, prima bakarreko aseguruaren kasuan, ekarpen egotziak zerga-oinarrian sartzearen geroratzea. Beraz, harik eta enpresak prima baka-

reko aseguru bat kontratatzen zuenean pentsio planei eta sistema alternatiboari eman beharreko tratamendu fiskala 3/1988 Foru Legean arautzen zuten artikulua indargabetu arte, langileek ez zuten deklaratu behar izaten egotzitako ekarpenaren zenbatekoa gauzazko ordainsari gisa, tributazioa geroratu egiten baitzen, prestazioak kobratzen hasten ziren arte. Horrekin batera, ezin zuten zerga-oinarriko murriztapena aplikatu. Pentsio planei eta sistema alternatiboari eman beharreko tratamendu fiskala 3/1988 Foru Legean arautzen zuten artikulua 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetu ziren, eta azpimarratu behar da horretarako arrazoi bakarra izan zela tratamendu fiskal hori zerga arloko araudian sartuta zegoela ordurako, eta ez zela legegilearen asmoa erregulazio hori aldatzea.

Halere, artikulua indargabetu zirenez, PFEZaren araudi indardunean ez dago berariazko aurreikuspenik prima bakarreko aseguru kolektiboetarako, eta beraz, ezinbestekoa da arau-hutsune hori behar bezala betetzea, prima bakarreko aseguru kolektibo horiek beti izan duten araubide fiskalari eusteko eta tributazio bikoitza saihesteko; izan ere, kasu hauetan tributazio horrek konfiskazio izaera ere izan dezake. Helburu horiekin berezitasun bat espresuki eranstean zaio PFEZaren araudiari; hain zuzen ere, prima bakarreko aseguruaren kasuan langileak ez duela bere zerga-oinarrian sartu behar prima bakarra, egozpen fiskala egin zaionean ere. Era berean, ezin izanzen du murriztapenik egin zerga-oinarriaren zati orokorrean; eta prima bakarreko aseguru kolektiboko prestazioak kobratzeko garaian, langileak lan etekin gisa deklaratu beharko ditu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 14.2). Bosgarrena artikuluan ezarritakoarekin bat.

Bigarren artikuluko hirugarren apartatuak hogeita bosgarren xedapen iragankorren 1. atala aldatzen du, hau da, pentsio planetatik datozen prestazioei aplikatu beharreko araubide iragankorren erregulazioa. Zehazki, 1. atal horri bigarren paragrafoa gehitzen dio, edukia argitzeko asmoz. Arau orokorra mantentzen da: 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako kontingentzietatik datozen prestazioen kasuan, onuradunek zilegi izanzen dute 17.2.b artikulua 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen bere testuan jasotako murriztapena aplikatzea, kasua bada.

Baina prestazio horiei dagokienez, argitzen da ezen, 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako kontingentzia horien kasuan, 2017ko abenduaren 31 arte egindako ekarpenei dagozkien prestazioetan baizik ez dela aplikatzen ahal

100eko 40ko murriztapena. Zehaztaper hori egokia da, ezen zenbait zergadunek, erretiroaren kontingentzia 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenago gertatu ondoren, erabakitzen dute prestazioa ez jasotzea eta pentsio planari ekarpenak egiten jarraitzea. Araudi berriak argitzen du hala egin dezaketela aurrerantzean ere; baina kasu horretan, 100eko 40ko murriztapena 2017ko abenduaren 31 arte egindako ekarpenei dagozkien prestazioetan bakarrik aplikatzen ahalko dute.

Foru legearen hirugarren artikulua Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 17.1 artikulua bigarren paragrafoa aldatzen du. Aipatutako 17.1 artikulua lehen paragrafoak ezartzen duenez, ondarearen gaineko zergaren zerga-oinarrian "bizitza-aseguruak konputatuko dira zergaren sortzapenaren unean zuten erreskate-balioaren arabera".

Komeni da gogoratzea 17.1 artikulua hori abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legean aldatu zela, puntu hau argitzeko: beste pertsona bat izendatu bada bizitza-aseguruaren onuradun errebokeaz (eta, horren ondorioz, hartzaileak ez du erreskate eskubiderik izanen, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen arabera) aseguru konputatuko da hartzailearen zerga-oinarria, onuradunari lortzea legokiokoen kapitalaren balioarekin. Halere, ikusi da 16/2017 Foru Legearen 17.1 artikulua hori aldatzean erregulaziotik kanpo gelditu direla beste kasu batzuk, aseguruaren onuradun errebokeazina aseguruaren hartzailea bera denekoak, bai eta erreskate eskubiderik ez dagoeneko kasuak ere; hau da, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 98. artikuluan aipatzen diren "biziraupeneko aseguruak eta aldi baterakoak heriotza kasurako".

Horregatik osatzen da 17.1 artikulua bigarren paragrafoa, kasu berriak sartzeko: aseguruaren onuradun errebokeazina aseguruaren hartzailea bera denekoa, bai eta erreskate eskubiderik ez dagoen kasuak ere.

Komeni da ohartaraztea aseguruaren erreskate aseguru kontratua hutsaltzea dela. Erreskate balioa da aseguruaren hartzaileari eskudirutan jasotzea dagokiona, prima-ordainketa eteten duenean eta aseguru kontratuaren poliza erabat hutsaldu nahi duelarik.

Laugarren artikulua bidez xedapen iragankor bat gehitzen zaio Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko xedapenen testu bateginari, ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren zerga egitateetan izanen dituen. Xedapen iragankorrek helburu du ezartzea 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenago gertatutako

zerga egitateek (34. artikuluan jasotako zerga egitate horien karga-tasak 16/2017 Foru Legearen bidez aldatu gertatzen diren heinean) ez dutela eraginik pairatuko testu bateginaren 51. eta 52. artikuluetan ezartzen diren dohaintza-metaketari buruzko arauen aplikaziotik. Esan beharra dago artikulua horiek arautzen dutela dohaintzen elkar-metaketa eta dohaintzak jaraunspenari metatzea. Horrela, dohaintza-emaile batek berak dohaintza-hartzaile berari hiru urteko epean egiten dizkion dohaintzak eskualdaketak bakartzat joko dira, eta tasa aplikagarriak dohaintza horien guztien baturaren arabera ezarriko dira. Horrekin bat etorrira, dohaintza horiek metatuko zaizkio dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearen alde sortzen duen oinordetzari, betiere hiru urteen epean egiten badira.

Dohaintza-metaketa horrek kuotari dagokionez ez du eraginik 100eko 0,8ko karga-tasa proportzionala aplikatzen denean (hau da, zuzeneko ahaideen arteko oinordetzan eta ezkontideen artekoan). Baina, jakina denez, zenbait zerga-egitateen karga tasak aldatu egin ditu 16/2017 Foru Legeak, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera karga tasa progresiboak aplikatzen zaizkie, 100eko 0,8ko tasa proportzionalaren arabera tributazioa alde batera utzita. Horregatik, gerta daiteke 2016an edo 2017an seme edo alabari dohaintza egin zion pertsona batek, seme edo alaba horri berari 2018an beste dohaintza bat egiten badio, metaketa izatea, eta, horren ondorioz, 2016ko edo 2017ko dohaintzaren tributazioa 100eko 0,8 baino gehiagoko tasakoa izatea. Ikus daitekeenez, lehen dohaintzari dagokionez, egoera horrek benetako edo gradu goreneko atzeraeragin moduko bat ekar dezake, Konstituzioak galarazia. Hori dela eta, xedapen iragankor hau gehitzen da, zehazteko ezen 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenago gertaturikoko zerga-egitateetan ez dutela eraginik izanen lege horren beraren 34. artikuluan karga-tasetan egiten diren aldaketek, testu bategineko 51. eta 52. artikuluetan dohaintza-metaketari buruz jasotako arauen aplikazioari dagokionez.

Bosgarren artikulua bi aldaketa puntual egiten ditu Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean. Alde batetik, lehen apartatuak 7. apartatua eransten dio 94. artikuluari. Artikulu horretan tributuen arloko kontsultak arautzen dira.

Kontseiluaren 2015eko abenduaren 8ko 2015/2376 Zuzentarauak fiskalitatearen arloko informazioaren nahitaezko truke automatikoa arautu zuen, eta haren ondorioz, mugaz haraindi eragina duten alde aurreko akordioei buruzko

nahitaezko truke automatiko horretarako betebeharrak gehitu egin dira, bai eta transferentzia prezioei buruzko alde aurreko akordioen esparruan ere.

Testuinguru horretan, 94. artikulua 7. apartatu berriak zehazten duenez, zergadunak tributuen arloan egiten duen kontsulta establezimendu iraunkor bat egoteari buruzkoa edo mugaz haraindiko transakzio bati buruzkoa denean, kontsultaren egileak espresuki eman beharko du inguruabar horren berri, berri-emate horrek ezertan eragotzi gabe kontsultari erantzuteko eskumena duen tributua administrazioak hori ofizioz hautematea. Horrela, Nafarroako zergadunek egiten dituzten kontsulta horien erantzunak Europar Batasuneko beste estatu batzuekiko nahitaezko truke automatikoaren xede izanen dira. Helburuak dira mugaz haraindiko sailheste fiskalari, plangintza fiskal oldarkorari eta lehia fiskal kaltegarriari aurka egitea, hiru arazo horiek nabarmen larriagotu baitira, izugarritzko kezka-iturri bihurtzeraino Europar Batasunean ez eze mundu osoan ere.

Estatuak agindu bat erantsi du 1065/2007 Errege Dekretuaren 66. artikuluan, Nafarroako arauaren 94. artikulua aipatuari gehitu zaionaren antzeko edukia duena. Bi kasuetan, tributuen arloko kontsultak dira gaia; hau da, modalitate zehatz bat "tax rulings" deitzen zaien horiena, zeinak jadanik definitu baititu Europako Batzordeak. Izena datorkie ingelesezko "advance tax ruling" esamoldearen laburtzetik: oro har, tributuen arloko ebazpen administratibo bat da, mugaz haraindiko eragina duena eta tributazio-baldintza espezifiko batzuk argitu edo finkatzen dituena, Europar Batasuneko estatuen arteko informazio-trukearekin lotuta.

Bestetik, bosgarren artikuluko bigarren apartatuak aldatu egiten du Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren hogeita zortzigarren xedapen gehigarria, bigarren atala gehitzeko, halako molde non xedapenaren egungo edukia 1. apartatua izatera pasako baita. Hiru tributuzko prozedura berri gehitzen dira; horietan, isiltasunaren zentzua negatiboa izanen da, epe-muga iritsitakoan ebazpen espresik jakinarazi ez bada. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 87.3 artikulua 7. testu berriak arau orokor bat ezartzen du; alegia, interesdunak eskatuta hasten diren tributuzko prozeduretan epea mugaeguneratzen bada ebazpen espresik eman gabe, isiltasun positiboa gertatuko dela, salbu eta isiltasun negatiboa lege mailako arau bidez ezartzen bada. Aldaketa hori zerbitzu ezberdinek eskatu dute, eta aipatutako hiru prozeduretan isiltasuna negatiboa izanen da.

Seigarren artikulua bidez bi akats zuzentzen dira, hiltegi-tako osasun ikuskapenagatik tasei aplikatzen ahal zaizkien murriztapenen testuan atzemandakoak; horiek arautzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoiei buruzko maiatzaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 111. artikulua d) eta e) letretan.

Horrez gain, foru legearen azken xedapenak zenbait hutsune formal zuzentzen ditu Zenbait zerga aldatzeari eta tributuzko beste neurri batzuei buruzko abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legearen edukian. Ikusten denez, foru lege horren hirugarren artikuluko hogeita zazpi, hogeita zortzi eta hogeita bederatzigarren apartatuen testuetan indarra hartzearen ondorioak ez ziren jaso. Horregatik, testu horietako bakoitzean zehazten da 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako izanen dituztela ondorioak.

Foru lege hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin. Horrela, beharrezko printzipioaren justifikazioa da ezinbestekoa dela Nafarroako tributuzko arloko araudia egokitzea Europar Batasuneko araudiak ezartzen dituen betebeharrak, eta nahitaezkoa dela zehaztea egun indarra duten zenbait aginduren edukia eta norainokoa, bai eta zenbait kasutan haien edukia aldatzea ere, araua egungo errealitateari hobeto egokitzea lortzeko.

Proporzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioei dagokienez, haien helburua lortzen da modu posible bakarrean; hots, foru legearen maila duen arau bat onetsiz, tributuen esparruan agintzen duten arau maila egokiaren eta lege erreserbaren printzipioak betez.

Lehen artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izateko, 39. artikuluko 1., 2., 4. eta 8. apartatuek testu hau izanen dute:

"1. Patenteak, utilitate-ereduak, medikamentuen eta produktu fitosanitarioen babeserako ziurtagiri osagarriak, lege babestutako marrazkiak eta ereduak, ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueren emaitza direnak, bai eta ikerketa eta garapen jardueren emaitza den software aurreratu erregistratua ere, erabili edo ustiatzeko eskubidea lagatzearen ondoriozko errenta positiboek zilegi izanen dute zerga-oinarrian ez sartzeko, honako koefizientearen emaitza 100eko 70ekin biderkatuz ateratzen den portzentajeraino:

a) Zenbakitzailean, entitate lagatzaileak aktiboaren sorrerarekin zuzenean loturik eginiko gastuak, harekin lotu gabeko hirugarrenekin azpikontratatzearen ondorioz datozenak barne. Gastu horiek 100eko 30 gehituko dira eta zenbakitzailea ezin izanen da izan, inola ere, izendatzailea baino handiagoa.

b) Izendatzailean, entitate lagatzaileak aktiboaren sorrerarekin zuzenean loturik eginiko gastuak, harekin lotutako eta lotu gabeko hirugarrenekin azpikontratatzearen ondorioz datozenak barne eta, kasua bada, aktibo ukiezinak eskuratzearen ondoriozkoak barne.

Aurreko koefizientean ez dira sartuko, inola ere, finantza gastuak, higiezinaren amortizaziokoak edo aktiboaren sorrerarekin zuzenean loturik ez dauden beste gastu batzuk.

Apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den aktibo ukiezinaren lege-babesaren araubidea zein den ezartzeko, jarraituko zaio jabetza industrialaren eta intelektualaren arloan Espainiako, Europar Batasuneko eta nazioarteko araudian, Espainiako lurraldean aplikatzeko den horretan, xedatutakoari.

Apartatu honetan aurreikusitako murriztapena halaber aplikatuko zaie bertan aipatutako aktibo ukiezinak eskualdatzearen ondoriozko errenta positiboari, noiz eta eskualdaketa hori lotutako entitateak ez diren artean egiten denean”.

“2. Ez dute inolaz ere murriztapenerako eskubiderik sortuko 1. apartatuan aipatzen diren aktibo edo eskubideez bestelako erabilera edo ustiapen eskubidea lagatzetik edo haien eskualdatzetik heldu diren errentek, eta bereziki aktibo edo eskubide hauen kasuan:

a) Markak eta izen komertzialak.

b) Industria, merkataritza edo zientzia arloko esperientziei buruzko informazioen gaineko eskubideak.

c) Industria-, merkataritza- edo zientzia- ekipoen gaineko eskubideak.

d) Planoak, formulak edo isilpeko prozedurak.

e) Marrak eta ereduak, 1. apartatuan aipatzen direnez bestelakoak.

f) Literatura lanak, lan artistiko edo zientifikoak, zinemagintzako filmak barne.

g) Lagatzeko modukoak diren eskubide pertsonalak, hala nola irudi-eskubideak.

h) Programa informatikoak, 1. apartatuan aipatzen direnez bestelakoak”.

“4. Murriztapena aplikatzearen ondorioetarako, honakoak joko dira errentatzat:

a) Hauen arteko diferentzia: aktiboak erabili edo ustiatzeko eskubidearen lagapenak ekitaldian eragindako diru-sarrerak, eta 17. artikulua aplikatzeagatik eta lagatako aktiboarekin zuzenean zerikusia duten ekitaldiko gastuengatik zerga-oinarrrian sartuz kentzen diren kopuruak.

b) Aktibo ukiezinaren eskualdatzearen ondoriozkoak”.

“8. Eragiketak egin aurretik, zergadunak zilegi izanen du tributu administrazioari eskatzea alde aurreko balorazio-erabaki bat har dezala, 1. apartatuaren aplikaziotik eratorritako murriztapen-porzentajea zehazteari dagokionez, bai eta aktiboaren lagapenetik heldu diren diru-sarrerei eta horiekin lotutako gastuei dagokienez balorazioa egitekoa ere, edo, kasua bada, eskualdaketa sorturiko errentak baloratzeko. Eskaera horrekin batera balorazio proposamen bat aurkeztuko da, merkaturako balioan oinarritua.

Proposamena ezetsizat jotzen ahalko da ebazteko epea bukatutakoan.

Erregelamenduz finkatuko da apartatu honetan aipatu aurretiazko balorazio-erabakiak ebazteko prozedura. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak merkaturako balioetan oinarrituta egon beharko du”.

Bigarren artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) honela idatzita geldituko dira:

Bat. 68. quater artikulua gehitzea. 2019ko urtarilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“68. quater artikulua. Amatasun eta aitatasun prestazioengatik kenkaria.

1. Dagokion kuota diferentziala ezarri ondoren, amatasun edo aitatasunagatik prestazio publiko bat jasotzen duen subjektu pasiboak zilegi izanen du halako kopurua kentzea non suertatuko baita letra hauetan ezarritakoaren araberrako porzentajea prestazioaren zenbatekoari aplikatzetik:

a) 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: 100eko 25.

b) 30.000 euro baino gehiagoko errentak dituzten subjektu pasiboak: 100eko 25, porzentaje horri kenduta subjektu pasiboak 30.000 eurotik

gora duen errenta-soberakinak 30.000 euroko kopuruarekiko egiten duen proportzioa 10ekin biderkatzearen emaitza.

2. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, subjektu pasiboaren errenta guztiak kontuan hartu beharko dira, barne harturik amatasun edo aitatasunagatiko prestazioa eta errenta salbuetsiak.

Goiko b) letraren emaitza den portzentajea bi dezimalek biribilduta adieraziko da. Emaitza negatiboa baldin bada, portzentajea zero izanen da”.

Bi. Berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. Pentsioengatiko konpromisoak taxutzen dituzten aseguru kolektiboei enpresek egindako kontribuzioak.

Enpresek hartutako pentsio-konpromisoei aurre egite aldera enpresaburuek enpresako gizarte-aurreikuspeneko planez bestelako aseguru kolektiboko kontratueterako ordaindutako kopuruak, Pentsio-plan eta -funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzen duen araudian ezarritakoaren araberrakoak, borondatezko egozpen fiskalekoak izanen dira; eta hartzen den erabakia mantendu egin beharko da, aseguru kontratua azkendu arte ordaintzen diren gainerako primei dagokionez ere. Egozpen fiskalik egiten ez zaien enpresa-kontribuzioak ez dira gauzazko lansaritzat hartuko, eta ez dute eskubiderik sortuko zerga-oinarriaren zati orokorrean murriztapenik egiteko.

Halere, pentsioak direla-eta enpresek bere gain hartutako konpromisoak betetze aldera enpresek prima bakarreko aseguru bat kontratatzen dutenean, egozpen fiskala jasotzen duten subjektu pasiboek ez dituzte bere zerga-oinarrian sartuko kopuru egotziak, eta ez dute eskubiderik izanen zerga-oinarriaren murriztapenik egiteko”.

Hiru. Hogeita bosgarren xedapen iragankorra, 1. apartatua. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako kontingentzietatik datozen prestazioen kasuan, onuradunek 17.2.b) artikuluan, 2017ko abenduaren 31n indarra zuen testuan, aurreikusitako murriztapena aplikatzen ahalko dute.

Apartatu honetan aurreikusitakoa aplikatzekoa izanen da 2017ko abenduaren 31 arte egindako ekarpenei dagokien prestazio-zatian soilik”.

Hirugarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izatekoa den indarrez, 17.1 artikulua- ren bigarren paragrafoak testu hau izanen du:

“Edonola ere, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 87. artikulua aplikatzearen ondorioz erreskaterako eskubidea galtzen denean, aseguruaren hartzaileak onuradunaren izendapena errebotatzeko ahalmenari uko egiteagatik, aseguru konputatuko da hartzailearen zerga-oinarrian, onuradunari zergaren sortzapenaren unean eskuratzea legokiokoen kapitalaren balioarekin. Hartzailearen zerga-oinarrian balio bera konputatuko da, erreskaterako eskubiderik gabeko aseguruak direnean. Paragrafo honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru-kontratuei, baldin eta heriotza edo balioezintasun kasuetarako prestazioak edo arrisku kasuetarako beste berme osagarri batzuk baizik jasotzen ez badituzte, ez eta kontraasegururik gabeko biziarteko eta aldi baterako errentei ere”.

Laugarren artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina.

Xedapen iragankor bat gehitzea, eragina izanen duena 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan.

“Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra, zenbait zerga-egitateri aplikatzekoa, testu bateginaren 51. eta 52. artikuluetan aipatutako dohaintzen metaketari dagokionez.

Testu bateginaren 51. eta 52. artikuluetako dohaintzen metaketari buruzko erregelen aplikazioari dagokionez, 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenago gertaturiko zerga-egitateetan ez dute eraginik izanen lege horren 34. artikuluko kargatasei Zenbait zerga aldatzeari eta tributu arloko beste neurri batzuei buruzko abenduaren 28ko 16/2017 Foru Legearen bidez egin zitzaizkien aldaketek”.

Bosgarren artikulua. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren agindu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 94. artikulua. 7. apartatua gehitzea.

“7. Establezimendu iraunkor bat egoteari buruzkoa edo mugaz haraindiko transakzio bati buruzkoa denean kontsulta, berariaz eman behar-

ko du kontsultatzaileak inguruabar horren berri, baina hori ez da oztopo izanen kontsultari erantzuteko eskumena duen tributu administrazioak ere ofizioz hauteman dezan.

Era berean, kontsulta-idazkian datu hauek jaso beharko dira, 1. apartatuan adierazitako datuez gain:

a) Kontsultatzailea merkataritza- edo zergatalde batekoa bada, talde horren identifikazioa.

b) Enpresa-jardueraren edo garatutako nahiz garatu beharreko transakzioen edo transakzio-sailen deskribapena. Edonola ere, deskribapen hori sekretu komertziala, industriala edo profesionala eta interes publikoa zeharo errespetatuz eginen da.

c) Kontsultaren xede den transakzioa edo eragiketa direla medio ukiturik suerta daitezkeen estatuak.

d) Beste estatu batzuetako egoiliarak, kontsultari ematen zaion erantzuna dela medio ukiturik suerta daitezkeenak.

e) Elkarri laguntzeko araudi aplikagarriak eska ditzakeen bestelako datu batzuk”.

Bj. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarriari 2. apartatua gehitzea; xedapenaren egungo edukia 1. apartatuarena izanen da aurrerantzean. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera hasitako prozeduretan eragina izateko.

“2. Interesdunak eskatuta hasitako beste prozedura batzuk, ezetsizat har daitezkeenak sei hileko epearen barruan ebazpen espresik jakinarazi ez denean:

a) Europar Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroan sartzea edo baja ematea eskatzeko prozedura.

b) Balio erantsiaren zergaren hileroko itzulketaren erregistroan izena ematea eskatzeko prozedura.

c) Aitorpen-likidazioak eta autolikidazioak zuzentzea eskatzeko prozedura”.

Seigarren artikulua. 7/2001 Foru Legea, martxoaren 27koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzkoa.

Eragina 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, 111. artikuluko d) eta e) letren testua hau izanen da:

“d) 100eko 20ko murriztapena, operadoreen historialean osasun publikorako arriskua dakarren urraketarik detektatzen ez bada, elikagaien produkzio, eraldaketa eta banaketaren edozein fase-tan elikagaien eta haien segurtasunaren, integritatearen eta osasungarritasunaren gaineko arauak betetzeari dagokionez, merkataritza jardunbide leialak bermatzeko eta kontsumitzaileen interesak eta informazioa babesteko arauak barne, bai eta elikagaiak ukitu behar dituzten materialen eta artikuluen fabrikazio eta erabilerari buruzkoak ere. Murriztapen hori aplikatuko da kontrol ofizialetan egiaztatzen denean aipatutako arauak bete egiten direla.

e) Murriztapena, hil aurreko kontrol eta ikuska-penak egiteagatik. Murriztapen hau aplikatuko da jarduera horiek jatorrizko ustiatzean egin zaizkirenean hil beharreko animaliei, hiltegian errepikatu beharrik gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 29ko 854/2004 Erregelamenduan zehaztutakoarekin bat, edo abereak hiltegiara iristen direnean haien kontrolatu eta erregistratzeko sistema bat badute, halako moduz non hil aurreko ikuskapena erraztuko baita.

Kontzeptu honengatiko murriztapenaren zenbaterako kalkulatzeko, 100eko 5eko portzentajea aplikatuko zaio kasuan kasuko espezieari dago-kion kuotari”.

Azken xedapenetako lehenengoa. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legearen aldaketa.

Hirugarren artikuluko hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren apartatuen errubrikak hauek izanen dira:

“Hogeita zazpi. 63. artikuluar 3. apartatua gehitzea. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina”.

“Hogeita zortzi. 64.A) artikulua, 1.a) eta 4. apartatuak aldatzea eta 5. apartatua gehitzea. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina”.

“Hogeita bederatzi. 64.B).1 eta 2 artikulua. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina”.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabide publikoei emandako erabileraren gaineko kontrol-sistema efiziente bat ezar dezan, zentro soziosanitarioetan farmazia-zerbitzua emateari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabide publikoei emandako erabileraren gaineko kontrol-sistema efiziente bat ezar dezan, zentro soziosanitarioetan farmazia-zerbitzua emateari dagokionez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du entitate pribatuek baliabide publikoei emandako erabileraren gaineko kontrol-sistema efiziente bat ezar dezan, zentro soziosanitarioetan farmazia-zerbitzua emateari dagokionez, Nafarroako osasun publikora bidera-

turiko funtsen erabilera arrazional eta gardena bermatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontrola dezan zentro soziosanitarioek, farmazia zerbitzuaren bidez, zer baldintzatan ematen dieten farmazia laguntza Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kargurako farmazia prestazioaren eskubidea duten egoiliarrei, eta, halaber, zer baldintzatan egingen den osasun laguntzaren prestazioan sartzen diren osasun produktuen hornidura.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliabide publikoei emandako erabileraren gaineko kontrol-sistema efiziente hau entitate publikoetan ere ezar dezan”.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikorako deialdia segurtasun juridikoz egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikorako deialdia segurtasun juridikoz egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikoa ziurtasun juridikoz egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du deialdi horrek Nafarroa-

ren eta Nafarroako hezkuntza-sistemaren errealtate soziolinguistikoari erantzun diezaion.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du oposizioko epaitegiak koordina ditzan, kalifikazio-jarraibide eta -irizpide argi eta homogeenok ezar ditzan eta informazio xehakatu eta osoa eman diezaien oposiziora aurkezten diren pertsoneri.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du garaiz egin ditzan deialdiaren arauak (esperientziaren balorazioa, merezimenduak, aurreko deialdietako emaitzak, kontratazio-zerrendak eta abar), oposizioa eginen duten pertsonen behar bezala ezagutu ahal izan ditzaten”.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, apustuekin eta, bereziki, kirol apustuekin zerikusia duen guztia arautzeko xedez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, apustuekin eta, bereziki, kirol apustuekin zerikusia duen guztia arautzeko xedez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru lege proiektu bat igor dezan arrazoizko epe batean, apustuekin eta, batez ere, kirol-apustuekin zerikusia duen guztia arautzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeen inguruetan

apustu-establezimenduak eta joko-aretoak irekitzea debeka dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru lege horretan alkoholaren eta tabakoaren baldintza beretan arautu dadin kirol-apustuen publikitatea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apustuekiko eta zori-jokoekiko adikzioaren eraginari eta bilakaerari buruzko berriazko azterlan bat egin dezan, azpimarra jarriz kirol apustuetan eta gazteengan. Azterlan hau Nafarroako Osasun Publikoak aurki aurkeztuko duen Drogei eta Adikzioei Aurrea Hartzeko Planean eta bere diagnostikoan sartuko da.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriazko lantalde bat sor dezan Drogei eta Adikzioei Aurrea Hartzeko Plana garatzean. Lantalde horretan ordezkatura

egonen dira hezkuntza eremuko eta eremu sozio-sanitarioko zenbait eragile, Joko eta Ikuskizun Publikoen Atala, toki entitateak eta ludopatiaren arloan lan egiten duten erakundeak. Lantalde horrek prebentzio politikak koordinatu ditu, eta aukera guztiak aztertuko ditu, arauzkoak barne,

gehiago kontrolatze aldera adingabekoen eskura egotea zori-jokoak eta apustuak, kirolezkoak bereziki”.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan urtegien segurtasunaren arloko legeria eta araudi indardunak alda ditzan eta Aspurzko urtegiaren proiektua baztertu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan urtegien segurtasunaren arloko legeria eta araudi indardunak alda ditzan eta Aspurzko urtegiaren proiektua baztertu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Esako urtegia handitzeko proiektuari eta azpiegitura horren kudeaketari buruzko elkarrizketa ireki eta anitza behar dela, bai gizartearen bai erakundearen, eta azaltzen du ados dagoela presaren segurtasunaren eta kudeaketaren jarraipen-batzorde bat sortzeko erabakiarekin, zeinean egonen baitira –ministerioaz eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaz gain– Nafarroako eta Aragoiko gobernuek, ukitutako udalak, Bardeako ureztatzailak eta urtegia handitzearen ondorioz ukitutako elkarteak. Halaber, batzorde horren lana gardentasunez eta zalutasunez egin dadila eskatzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarrien Lanbide Elkargoari eskuragarri dagoen informazio guztia aztertzeko xedearekin agindu dion azterlanean kontuan har eta balora daitezen Nafarroako Gobernuaren departamentuarterako lantalde batek 2016ko ekainean egindako “ebaluazio-txosten teknikoaren” konklusioak

nahiz Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunari eta segurtasun-ebaluazioari buruz Nafarroako Gobernuak 2018ko urrian eskatutako txostenetik heldu diren konklusioak eta gomendioak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Esako urtegia handitzeko obrak geldiaraz ditzan, salbu eta obren eta presaren segurtasunari dagozkionak, harik eta argitzen ez diren arte segurtasunari buruzko auziak; besteak beste, horretarako eginen diren aztelan independenteen bidez. Geldiarazpen horretan halaber sartuko dira Sigüésen inguruan egiten ari diren obrak eta jarduketak, halako moldeez non, baldin xedatzen den betetze-kuotak ez baditu obra eta jarduketa horiek beharrezko egiten, behin betikoz geldiaraziko baitira, eta desjabetze-prozedurak atzera botako.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du presen segurtasunaren arloko legedi eta araudi indardunak alda ditzan; hartara, segurtasun-faktore bat ezarriko da mazelaren eta ezponden luizi-arriskuen arloan besteak beste, arlo horretan beste estatu batzuetan –esate baterako, AEBetan, Portugalen edo Italian–duten mailara heltzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Aspurtzen kokatuko litzatekeen presaren proiektua baztertu dezan eta behin betikoz erretira dezan are hipotesi gisa jasota legokeen plan orotatik”.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat taxutu dezan, amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxikipenak itzultze aldera.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko urriaren 25ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat taxutu dezan, amatasun prestazioa dela-eta PFEZean egindako atxikipenak itzultze aldera. Mozioa Ana María Beltrán Villalba andreak aur-

keztu zuen eta 2018ko urriaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

